

# Lagun armatua





**Raul Zelik** | (Munich, 1968). Bere lehen eleberria argitaratu zuen 1997an, *Friss und stirb trotzdem* eta, ordutik hona, sari eta errekonozimendu ugari jaso ditu. *Berliner verhältnisse* liburua alemanerazko liburu onenaren sarirako izendatua izan zen 2005ean eta, Alemaniako kritikaren esanetan, etorkizun handiko idazlea da Zelik.

Hegoamerikara egindako bidaien fruitu dira *Venezuela, más allá de Chávez* saiakera eta *La negra* eleberria. Euskal Herriarekin lotura estua du eta lotura horretatik etorri dira Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztuaren* alemanerazko itzulpena (Petra Elser-ekin batera) eta *Lagun armatua* eleberria.

Raul Zelik

# Lagun armatua



OBRA HONEN ITZULPENAK  
GOETHE INSTITUT-EN LAGUNTZA JASO DU



JATORRIZKO IZENBURUA  
*Der bewaffnete Freund*  
Blumenbar Verlag, München 2007

ALEMANETIK ITZULPENA  
Edorta Matauko

LEHENENGO EDIZIOA  
Tafalla, 2009ko iraila

© Txalapartak EDIZIO HONENA  
© Raul Zelikey OBRARENA  
© Edorta Mataukok ITZULPENARENA

Editorial Txalaparta e.m.l.  
Navaz y Vides 1-2  
78. Posta kutxa  
31300 Tafalla NAFARROA  
Tel. 948 70 39 34  
Fax 948 70 40 72  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.com



AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA  
Esteban Montorio

MAKETAZIOA  
Monti

INPRIMAKETA  
RGM  
Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.  
48610 Urduliz - Bizkaia

ISBN  
978-84-8136-557-3  
LEGE GORDAILUA  
BI. 2.396-09



*Martín, László eta Jennifer... hiru lagun paregabei*  
*Mila esker: Sietevidas eta Jonan*

Maitasunaren kariaz  
Hainbeste eman zuten  
Lagun izen gabeak.  
Inongo etekinik ez eta  
Hainbeste gauza bota dituztenak.  
Mundua ala norbera, arrazoia ala nahia,  
zein da antzaldatzen?  
Gaueroko epaian errudun  
ala gabe al dira sentitzen?  
Arakatu nahi nuke  
Urteon arrailduratik  
Haien bizitza.  
Haien bizitza ixila,  
Lagun erratuena,  
Bizitza bakarra.  
Mundua ala norbera, arrazoia ala nahia,  
zein da antzaldatzen?  
Gaueroko epaian errudun  
ala gabe al dira sentitzen?  
Goazen, bada.  
Palmondopean  
Laztan ditzagun  
Kaobazko eskuak  
Tristeziaren metro kuadratu  
Baten gaindi...

ALGECIRAS AURREZ AURRE, Maroko eta Espainia bereizten dituen itsasartean. Gasolindegian erosi dugun egunkaria eskularruen kutxa gainean dago. Tolestuta.

Lehen orrialdean, kiskalitako kamioi baten ertz-inguru beltzak ageri dira. TERROREAREN GORALDIA, idatzita dago hizki handitan argazkiaren gainean. Egunotan Irakeko berriak errepikatzen dira, beti-batekotasun gogaikarriz.

Gaizki egindako autobide baten itxura duen errepide batetik barna goaz, N-340 errepide nazionaletik barna; autoa utzi eta itsasaldera jo dugu, apartamentu-koloniak oraindik eraiki gabe dituen lur-zerrenda estu bateraino uraren eta asfaltoaren artean. Autoan Rabbee-k baieztatu dit berarentzat hondartzek ez dutela bestelako baliorik. «Daukaten funtzio argi bakarra itsasoa lurretik aparte mantentzea duk».

Hala ere, hondarra ukitzean, zorionezko aurpegiera jarri du, eskualdea aspalditik okupatua duten milioika turista eta pentsiodunena bezalakoa.

«Fresko». Eguraldiaz ari da. «Nik uste nian abuztuan tenperaturak ez zirela jaitsiko hogeita hamar gradutik behera».

Airea hezea izan arren, oskarbi dago. Itsasartearen beste aldean mendikate baten inguruak antzematen dira. Gibraltarreko estugunea puntu horretan ozta hogeiki kilometro zabal da. Begirada galtzera utzi dugu. Ia pentsa liteke beste alderaino arin, aise igeri egitea dagoela.

«Zergatik ez duk hemen idazten hire lana?».

Besaburuak altxatu ditut.

«Ulerterraza lukek, ordea. Non ezagut daiteke ezer ertzetan baino hobeto?».

Normaltasun egoera ertzetik, salbuespenetik, aintzat hartuta argi bereziarekin ezagut daitekeela da halaber nire tesia, baina ez diot erantzun. Burua lepondoan sartu dut. Sorbaldak minduta dauzkat, Rabbeek Sevillatik honainoko tarte osoa gidatu badu ere. Rabbeeren oharpena berretsiz bezala, hogeita hamar metro gure buruen gainean helikoptero karrankari bat ari da itsasertza arakatzen. Kolore atseginak ditu, horia eta urdina. Zertarako erabiltzen duten ez gogorarazteko.

«Ez lukek berdin izango», diot. «x aldean dena guztiz bestela azaltzen duk».

Helikopteroa *-boat people* ari da bilatzen, kostatik urrun mantentzen saiatzen diren legez kanpoko etorkinak- hego-mendebalerantz desagertu da. Itsas zabaleko ontziek, Gibraltarreko harkaitzaren aurretik igaro ondoren, Atlantikorako norabidea hartzen dute. Container-dorreak zerumugan.

Rabbeek dio hurrengo urteetan Ingalaterrako eta Alemaniako 800.000 familia gehiago Costa del Solera bizitzera joango direla, irakurri duenez. Beste immigrazio mota bat... baina inolaz ere ez haren kontra aparatu militar eta poliziala mobilizatzeko modukoa. Hondarra hartu eta esku batetik bestera isuri dut kuartzo ehoa.

Olatuak itzulipurdika ari dira gure aurrean talka eta talka. Aparra hondarrean iragazten da, bitsezko anpu-luak atzean utziz. Urak olio mintz bat darama gainal-dean. Plastikozko poltsa huts bat, konpresa odoltsuak. Hala ere, metro batzuetara jendea ikusten da itsasoan zambuluka.

Une batez, Rabbee ukitzeko bulkada izan dut. Jen-daurrean hari musu ematea pentsaezina zait oraindik ere. Agian, ez dudalako nahi inork sailka eta identifika nazan.

Neure buruari galdetu diot beldur hori ez ote dago-kion burges txiki bati.

Rabbeek uste du Espainiako hego muturra fenome-no bat dela. «Algeciras atzean utzi eta tupustean beste ikuspegi bat azaltzen duk. Atlantiko aldera landaredia berdeagoa duk, paisaia bigunagoa, hondartzak hutsik zaudek». Isilune bat egin du. «Baina hor ere dena alda-tuko duk». Artikulu berean, dio, aipatzen da Cadizetik hegoalderako hondartzetan badagoela giro urre bila-tzaileentzat.

Rabbeeren hatz erakuslea atzemateko deliberoa har-tu eta samur heldu diot.

Tarifa. Lagunek hiria goretsi didate: «Leku bat oraindik Mallorca bezala haztatua ez dagoena». Kaleetan barna nora ezean goazela, alderaketa okerra izan delakoan na-go. Britainia Handiko, Alemaniako, Luxenburgoko ma-trikuladun kabrioletak; marka kaskarreko jantziak era-kusleihoetan. Irudiok gogora dakarte Tauber ibai ondoko Rothenburg: salgai mota guztien museo antzeko era-kustokia. Neure buruari galdetu diot hori ere seinlatu-ko ote lukeen Haberkamm-ek *osatuz doan identitate eu-*

*ropar* gisa: tankera funtzionaleko hiriguneak ezertan ez bereiztea bata bestetik.

Taberna batean sartu eta Rioja eskatu dugu. «Okerrena neo-hippismoa duk», diot. «Motxileroak, progre us-tekoak, baina egiaz agentzia-turismoaren aurrendari talde neoliberala baino ez dituk».

Tarifa surf-paradisu bat da. Dendak gazte ingelesdun kif-kontsumitzaileengana zuzenduta daude.

Rabbeek bekozkoa jarri du. «Kultur pesimista zahartu bat bezala mintzatzten haiz». Lagunak badaki zertaz ari den. Walter Benjaminen historia-tesiei buruz egina du doktoretza.

Aurrerapena: enbata bat historiaren hegoetan zirimolatuz eta hondamendiak pilatuz paradisutik kanpora egozten gaituena.

Ardoa edan dugu, berriz eskatu dut. Edontziak bete ahal, berehala gandutu dira. Andaluzian Rioja ere hotz zerbitzatzten dute. Horrela taninoen zaporea murrizten da. Hormetarik zezenketariak begira ditugu. Thomas Meineren eleberri batean irakurria dudala uste dut, tore-roak *camp* direla. Matxoak eta hala ere maritxuak. Jantziak eta imintzioak guztiz eme itxurazkoak dira; animaliarekin borrokan diharduenak, aldiz, gizontasun agerraldi bat egiten du. Oharpena niretzat gordetzea erabaki dut. Rabbeek errepikatzen ari naizela baieztatuko luke.

Hizketan jarduteko eran bikote zahar bat ematen dugu. Hilabete pare bat baino ez hasiak garel eta...

Bai, zer gara gu benetan?

Ez gabilta *elkarrekin*.

Taberna uztean, haize hezeak aurpegian jo gaitu. Itzalpean aparkaturiko BMWen artetik egin dugu aurrera; ni,

harrapatu dudan mozkorrean kontzentratuta. Euforia apala. Rabbeek erabakimenez jo du hiri zaharraren mende baldetik Tarifaren alde atlantikora hedatzen den hondartzarantz. Itsasora heltzekotan gaudela, begi aurrean agertu zaigu gotorleku zaharra: bertatik kontrolatzen zuen lehen Espainiak Mediterraneoko sarbidea. Eraikin puska hexagonala, urrundik ere beldurra eragiten duena.

Barruan omen dago legez kanpoko etorkinak atxikitzeko tegi bat.

Oharpen hori egiteari ere eutsi diot. Hala balitz, hau xe esan nahi luke: kontinente europarreko punturik hegoaldekoena biltegi bat da.

Rabbee, eguzkitako bat alokatuta, guretzako toki baten bila dabil Interrail-neskatilen, zenbait surflariren eta 45 urte inguruko ama bakartien artean. Begirada alde-rrai utzi dut. Rabbeerekin, nolabait esanda, afera bat dudanez geroztik, pertzepzioa ari zait sexuz janzten. Nabarmenkiro interesatzen zaizkit gizon eta emakume gorputzak, biak neurri berean. Alabaina, soilik itxura maskulino edo femenino argi-argia dutenak.

Arretaz ikuskatzen ditut gorputzak. Hondartzan ongien: bertan jendea biluzik begiestea dago indiskretu izan gabe. Behatuei ez die axola inor ote dagoen *haiei* ala haien atzeko itsas-hautsiari begira.

Bainatzera joateko gogoia ote dudan galdetu dit Rabbeek. Baiezko mutua egin dut. Ura hotz dago, itsaslaster atlantikoia.

Sei hilabetez geratu nahi dut Espainian, Europari buruzko egitasmu zientifiko batean esku hartzeko; horretara, oinarrizko galdera dagoeneko ipinita dago. Zer izango ote da hori: Espainia, Europa? Ez dira lau aste igaro

gonbidatu nindutela. Haberkammen zuzendaritzapean, diziplina anitzeko nazioarteko talde batek identitate europarra ikertu behar dugu. Edo bestela asmatu. Haberkammek *estatuena gaindiko kontzientzia zibilaren eraketa* izendatu du hori, eta argitu ere testuak EBko hainbat estatu kidetan landu eta ekarpenak bildu behar direla. Proiektuak badu ildo bat ireki nahi izatearen antza, orain, bateratze prozesua krisi sakonean sartuta dagoela, europar intelektual aitzindariak bultzada berria eman nahi diote, eta ni haien zerbitzuan jarri naiz lankide. Haberkammek Espainia proposatu dit, gaztelania ia ama-hizkuntza bezain ondo dakidalako. «Horrek ahalbidetuko dizu tokiko errealitatean normaltasunez murgiltzea». Ordainduta dauzkat bidai gastuak, kolaboratzaile zientifiko bati dagokion soldata eta atzerriko gainordain bat. Gainera, neure kabuz ibil naiteke lasai. Jakina, postazko harremana izan beharko dut erregulartasunez Haberkammekin eta Alemaniako koordinazio taldearekin. Baina ikerketa lekua eta jardungaita hautatu ahal izan ditut. Haberkammek egiten du, enpresa aholkulari batek esango lukeen moduan, *sormenezko indarren askatze* alde.

x aukeratu dut. Hiriarekin –haren izena, gaizkiuleru eta asoziazioak saiheste aldera, egun hobeto maizegi ahotan ez hartzea– ez daukat jada, egia esan, duela hoge urteko harreman bera, baina oraindik ere eskualdeko gauza asko estimu handitan ditut. Paisaia, adibidez, mendien eta itsasoaren elkar topatzea, baina baita bertako biztanle askoren joera ere, dena, den bezala, besterik gabe ez onartzekoa. Haberkammek, nire harridurarako, berehala oniritzia eman du. «Ederki. Horrela, nik zuri bisita egitean, Guggenheim museora joango gara». Berak hiri benetan handi bat nahiago izango zuelako usatean nengoen. x-ko inguru handiak ozta milioi bat biz-

tanle du, kalkuluan sartuta lehengo industria auzoak, asko eta asko 8oko hamarraldian errekarara joanak eta bizkitartean gehiegizko gastuz saneatuak. Alabaina, beharbada, Haberkammek horretaz ere egina dauka gogoeta, periferia probintzioletik ikerketa bat hainbat eta interesgarriago izan litekeela. Azken finean, integrazio guztien ontasuna ertz-inguruetan sortutako efektuetan neurtzen da.

Horretan ere Rabbee ados egon liteke.

Haberkammen gonbidapena onartu eta gero, Katharinari hots egin nion.

«Lan bat zaukanat, baina ez Berlinen».

Isiltasuna.

«Hanna ere eramango niken».

Zalantza une bat. «Hi bai eskuzabala».

«Nirekin eramango dinat, eta hik zenbait hilabetez atsedean hartu».

«Nire ustez, ez duk batere ideia ona».

Poztu egin ninduen, jakina, Katharinak eskaintza atzera bota izanak. Ez dut batere garbi nola moldatuko nintzen lau urteko neskatxa batekin hiri arrotz batean. Etxean badugu plaza bat hartzaindegi alternatiboan, eta bizpahiru lagun noizbehinka Hannari kasu egiten diotenak. x-n haurrarekin bakarrik egongo nintzatekeen. Biok adostu dugu, hortaz, Hannak Katharinarekin emanngo duela urte erdia eta, bitartean, nik pare bat aldiz hegan egingo dudala etxera.

*Adostuta.*

«Argi dinat, bada, zordun geratuko naizela».

«Ederra, gero, hik alabarekin egondako denbora batik bat zama balitz bezala sentitzea».

«Nik ez dinat hori esan».

Zer esan nuen, ba?

«Pentsatzen ari naun, besterik gabe, gainera etorriko zainan estresean. Horregatik, gero hik ere har itzan hilabete batzuk libre».

Honen erraza balitz bezala: sei hilabete nigana, sei hilabete harengana.

«Okay».

Katharinak nirekin eztabaidatzeari utzi diola uste dut. Kasu honetan, behintzat, argudio ona neukan. «Ezin ditinat lanak aukeratu, badakin».

Legarrezko pistak karraska egin du leun, hurrengo egunean autoz Katharinaren aitaren errota zaharrera inguratu garenean; laster hamar urte egingo ditu han bizi dela. Hauts-zurrunbilo batek inguratu gaitu. Harroturiko hondar fina astiro pausatutakoan, Hanna ikusi ahal izan dut, eta Armin, Katharinaren aita.

«Kaixo, pottoka», dei egin diot nire alabari; gugana dator korrika. Arin hartu dut besoetan, ez nauka ahaztuta. Hannak lehenbizi niri eman dit musu, eta gero –ustekabeen harrapatu nau– Rabbeeri, zeinak irribarrez ilea ukitu baitio.

Sendi-idilioa, lehen begiratuan baino ez, alabaina. Katharina ez da geratu gure zain; aitzitik, goizean Portugalera abiatu da, gurekin topo ez egiteko.

Hasieran Hannaren bila etorri nahi nuen eta Rabbeerekin batera hirurok hamar egun igaro hondartza batean, hemendik ez oso urruti, baina Katharinaren aitak proposatu zigun bere etxean, errotan, gera gintezkeela, horrela askoz atseginago izango litzatekeela. «Nahi izanez gero, hire lagun berria ere ekar dezakek».

*Nire lagun berria.* Arminek balioesten du hala bereizketak nola harreman homosexualak ere guztiz normalak direla bizitzan... gertuan, bere alabaren bizitza guztiz normalaren inguruan, gertaturik ere. Armin ideia liberalen gutxienerako bat gorde duen belaunaldi aktibista batekoa da.

Katharinak hori berdin-berdin ikusten ote duen, ez dut iritzia ematerik. Bereizi garenetik, bidetik alde egingen dit.

Arminek bidaiaz galdetu du. Rabbeek erantzun du errepide nazionala Algecirasetik Malagara penagarri dagoela. «Erreperidera sartzeko, lehenengo abiadura sartu behar da».

Arminek, baiezko keinua eginez, dio Algeciras eta Malaga arteko N-340an gertatzen direla Andaluzia osoko istripu gehienak.

Biak solasean hasi dira errepide espainiarretako heriotza tasei buruz, eta, galderak agortzen ari direla dirudienean, hurrengo hizketa-gai saihestezinerara lerratu dira: Marbella. Biak berehala bat datoz hiriak gustu ezaren pilaketa irudikatzen duela; ipar eta erdialdeko europar erosleen neurritan taxuturiko merkataritza guneez era esanguratsuan frogatuko lukete aberatsak ere errukarri bizi daitezkeela.

Azkenik, Arminek ea afalduta gauden galdetu du. Zortziak baino lehentxeago, berotzarra ezari-ezarian apalduz doa. Hannak Rabbeeri kontatu dio trikua orga zaharren atzeko bere gordelekitik ateratzen dela bazuetan, baina beti gauez. Neure artean galdetu dut trikurik izango ote den hemen, Murtziako mendietan.

Olibondo batetik eskegitako petrolio-lanpara baten pean –Arminen errota hamar urte igaro eta gero ere oraindik ez du argindarrik– afaria egin dugu. Hanna, ia lotan, altzoan apatx izan dudana arren, ez naiz gustura

sentitu. Artean Katharina eta biok elkarrekin geundean, aita-ama-haurra konstelazioarekin arazo bat nuelako uste sendoan bizi nintzen. Orain egiaztatzen ari naiz ez naizela hobeto sentitzen, alabaren ondoan, haren aitona alternatiboarekin eta nire bikotekide homosexualarekin batera mahaira eserita.

Geroago, oheratu garenean, pozik nago Rabbee bere aldera biratu eta berehala lotaratu delako.

Hurrengo goizean mendien aldera gidatu dugu, urtegi batera, Arminen errotatik ordu erdi bat urrun gutxi gorabehera. Bederatziak jo berri dute, oraindik bero handirik ez. Malda arre nabar eta hautsez beteak altxatzen dira urtegiaren inguru osoan. Mendialde espainiarra udaldian ez da egiaz ederra; egunez ez, behintzat. Eguzkiak bete-betean jotzen duenean, paisaia desagertzen da gandu lehorrezko estalki baten atzean.

Hannak dio bertan bizi gintezkeela, ur bazterrean, denok elkarrekin. Etxe txiki zuri batean ahuntz, katu eta trikuarekin, jakina. «Familia osoa. Hanna, aitatxo, amatxo eta amatxo».

«Amatxo eta amatxo?», galdetu dut.

Rabbeek irri egin du. «Nor da, ba, bigarren ama?».

«Aitaren neska-laguna».

«Horretan oker zaude. Aita da Rabbeeren neska-laguna».

Hanna, ordea, ez da xehetasunez interesatu. Gomazko gerrikoa puztu diezaiozun nahi du.

Rabbee eredu zko portatu da. Hanna altzoan hartu eta gerrikoa jarri dio.

Zein ondo dakien umearekin ibiltzen. Beti maite-maitekorra izaten da.

Itsasoari begira nago.

Gero egunkaria hartu dut.

*El Mundo* erosi dugu, *El País* liberalarekin duen aldean uste bezain handia ez dela frogatu dudalako. Estatu barneko orrietan zabaldu dut. Lanpostuak ontziolako langileentzat, bete gabe gera litekeen promesa; eguneroko jarrera hartzeak x inguruko eskualdeko gatazkari buruz; ezkerreko nazionalista katalanen aldarrikapena, diktadura frankistaren artxiboak berrireki ditzaten.

Eta azkenik argazki bat, testu luzea eta guzti.

Hogei zentimetro gorako bi zutabe. *Banda terroristaren berregituraketa* dio. *Buru berria*.

Hizkiak ñir-ñir ari dira goizeko eguzkitan. Egunkari papera leunki ukitu dut.

Aurpegia berehala ezagutu dut.

Zubieta da irudiko gizona.



ZUBIETAREN BENETAKO IZENA EZ DUT INOIZ GALDETU. Lehenbiziko aldiz bion adiskide zen neska baten etxean egin nuen topo harekin. 1984an, oraindik sasia ez zebilenean. Montsek –izen osoa Montserrat da, Kataluniako mendia bezala– eta biok lehentxeago ezagutu genuen elkar, Angulemako komiki azokan. Urte haietan lagun pare batekin ibiltzen nintzen, zein baino zein, Aste Santuko eta Mendekosteko oporraldietan ahalik eta diru gutxien gastatuta ahalik eta urrunen joateko, eta aldi hartan Frantziako mendebaldera iritsi nintzen, urtero komikiaren agertoki bihurtzen den hiriraino. Montse neska fina zen, txirri erretzailea, ni baino zazpi urte zaharra. Castermanen postuan egin genuen topo, Hugo Pratten komiki argitaletxearenean, eta laster garatu zen gure artean hiruki harreman bitxi bat. Solas egin genuen Corto Maltesi buruz, Hugo Prattek sorturiko pertsonaia alderrai justizia zale eta neurri berean Che Guevara, Bruce Chatwin eta James Dean hilezkor ederra gogora zekartzanaz, eta Montserratek, bat-bateko apeta bat kanporatuz bezala, bere etxera gonbidatu ninduen. Laurehun kilometro hegoalderago bizi zen, mugaren beste aldean, eta auzoan

labur *villa* izendatzen zuten etxe bateko lehen solairua zuen bizitokia. Sukaldeko leihotik ikusten ziren abere-entzako larreak, eliza zahar bat, industrialde behera etorri samarrak, portu txiki bat eta itsaso atlantiko zakarra: x inguruko eskualdeko nahasketa bereizgarria. Etxearen atzeko aldetik gora, hamar bider hamar metroko belardi batean, baserritar zaharrak segaz aritzen ziren goizero, eta, eguerdi aldean berotzen zuenean, belar onduaren usaina zabaltzen hasten zen. Ipar-ekialdean Pirinioetako ertz-inguruak ageri ziren.

Montse lanean ari ohi zen arratsaldeko zazpiak arte. Etxeratzen zenean, *villako* balkoi estuan esertzen ginen, arrantzaleen badiara begira. Montsek bere esku-ahurrean haxix ilun marokoarra lurrin apaleko tabakoarekin nahastu eta erretzeko paperean trebeki biltzen zuen; gero Corto Maltesen bisitaren zain geratzen ginen. Gehiengotan handik gutxira elkartzen zitzaigun, ilundu eta gero, baina orduan ere gutxi hitz egiten genuen. x inguruko eskualdean –haren izena esatea bazegoen berriz ere, Europako egunkari handietan ere biztanleen matxinatzeko gogoia omentzen zutelarik noizean behin– jendea hitz gutxikotzat hartua da. Hori ei da, arrantzaleak, meatzariak eta artzainak ogibide bakartiak direlako. Baliteke, ordea, zerikusia izatea honekin ere, haien hizkuntza behin eta berriz debekupean egon izanarekin, alegia, edota itsasertz hodeitsuen eta mendialdeko paisaiaren ikuspegiak jendearen aldarrean duen eraginarekin.

Konspiratuen elkarte baten irudia ematen genuen: Montse, barre urratuko emakumea; ni, hamazazpi urte bete berriak nituena; eta Corto Maltes, komiki pertsonaia malenkoniatsua.

Zubietak bake hori puskatu zuen. Gizon bat aurpegi luzexka eta masail sartuekin, baina tripa handitzen ha-

sia. Ez zirudien inolako interesik zeukanik aurrean zuenarekin. Politikaz hitz egiten genuenetan, garai hartan saihestezina zena, eta Nikaraguako iraultzaz eztabaidatzean, niri ezer esaten ez zidaten adigaiak erabiltzen zituen, *beharrizan objektiboa*, *prozesu soziala* eta halako adigaiak. Gehienetan ez zen luze geratzen. *Betebeharrak*.

Zubietak beti *betebeharrak* edukitzen zituen.

Batxilergoa elkarrekin egina zuten, azaldu zidan Montsek nire lehenengo topaketa Zubietarekin izan eta gero, eta hizkuntza, artean legez kanpoko, elkarrekin ikasia. Eskolak isilpekoak izaten ziren, lagunarte gastronomiko bateko jangela-ostean, izar gorridun ikurrin baten pean. «Konbinazio bitxia: sukaldea, ikastea, iraultza...», esan zuen Montsek eta irribarre egin. «Kontu zaharrak». Ondoren nork bere bideari jarraitu zion banandurik. Geroago konaturatu nintzen elkarrekin ibiliak izango zirela.

1984ko Eguberrietan berriz ere hegoaldera jo nuen: hiru aste luze. Alemaniako negutik ihes egiteko eta agian ziurrenik ere adiskide zaharragoarekin lo egiteko asmatan. Urte aldaketa ospatu genuen, urte berezi bat: ez-kortasunaren eta beheraldiaren gailurra. «Etorkizunik ez», esaten zen, ingelesez baina, horrela berezkoago zirudien eta. Dena gain behera zihoan: basoa, gizadia eta bizimodu burgesa nolana ere. Corto Maltesi buruz jada apenas mintzatzen zen *villan*. Txangoak egiten genituen, ordea, nora eta... alde frantsesera.

Bayonne, Montsek temaz Baiona deitzen zuena, harrizko astuntasun-edo baten isla zen. Tren ibilbidea mugatik gora zihoan malda berde bizien ondotik. Aire leuna, itsasoa apar-koroez gaineztatua zen. Urtarril-egun haizetsu bat.

Taberna batean topatu genuen Zubieta. Haren atzean goian *Kronenbourg bière d'Alsace* irakur zitekeen kartel batean. Literaturaz hitz egin genuen, eta Zubieta sentibera azaldu zen ezustean. Berak ere idazten zuela argi geratu zen. Antzerkirako testuak, literatur aldizkari esperimental bat, punk banda bat gero ospetsu bihurtuko zena eta geroago, bizkitartean Dub estilora heldua, eskualdetik kanpo jotzeko debeku faktiko batek jazarria izan zena. Zubietak hirian barna eraman gintuen. Bai onak txiki, landugabe, zahar itxura zuen, ez naiz sekula hara itzuli. Montsek isilik eman zuen denbora gehiena, Zubietarekin hitz egiteko zerbait izan eta nik eragotziko banio bezala. Baionan Errobi eta Aturri batera itsasoratzten dira: ibai arre nabarrak dira, iturburua Pirinioetan dutenak, baina hemen, bokalera hurbiltzean, nagi antza dute. Gogoan ditut gure ibilaldietako irudiak: zerua goibel, haizeak malguturiko zuhaixkak, bandera frantsesak airean kaian, arrantza-ontziak. Behin edo behin Zubietaren ohar ironiko bat, irribarre batez lagunduta.

Eta behin eta berriz haren begirada urduria sorbalda gainetik.

1983 eta 1989 artean *Grupos Antiterroristas de Liberación* eskuineko taldeak hogeita hamar lagun baino gehiago erail zituen Frantziako hego-mendebaldeko herrietan mugatik gertu. Handik urte batzuetara Europako egunkarietan ere irakurri ahal izan zen x inguruko eskualdean ordurako mundu guztiak zekiena baina kanpoan esaterik ez zegoena, konspirazioaren teorikotzat irigarri geratzeko prest egon ezean: Madrilgo gobernu sozialistak herio-eskuadroiak sortu zituela, alegia, Frantzia erakunde debekatuko kide iheslariak estraditatzera behartzeko. Orduan horiek babes politikoa jasotzen baitzuten artean auzo herrian. Franco ez zen hil zaharra, eta

gatazkaren aitzin-gibelak agerikoak ziren. Behin Zubietak ere txiripaz ihes egin zion atentatu bati. 1986ko Gabonetan Hendaian bisita egin nionean, etxeko atarian aste gutxi geroago bertan hil zuten alboko bizilagun batekin egin genuen topo. Zubietak azaldu zuenez, gizona ihes eginda zegoen alde frantsesera, ez zuelako soldadutza Espainian bete nahi. Isilpeko taldeekin inoiz zerikusirik izan ez bazuen ere, GALEk, gobernu espainiarraren manupean, bonba bat jarri zion auto azpian.

Hori ere bazen normalizazio demokratikoaren atal. Terrorearen historiaren atal.

Egun lasaiak igarotzen ari gara Arminen errotan. Rabbee, Hannarekin batera, inguru hurbila ezagutzera joan da eta auzoko etxe-abereei ikustaldiak egitera; Armin, bere baratzea lantzen; nik Dietmar Dath-en eleberri bat irakurtzeari ekin diot, lodieragatik beti beldurtu nauten liburu horietako bat, eta bezperan *El Mundon* ustekabeen topatutako artikuluan ez pentsatzeko ahaleginean ari naiz.

Eguerdian Arminek bazkaltzera gonbidatu gaitu. Pizzeriak itsasora eta arrantza porturako ikuspegia du. Aspaldi ez dela Rabbeeren lagunak, Mark-ek, hitzaldi batean baieztatu zuenez, Costa del Solen urteak dira arrantza jardun gehiago ez dagoela. Arrantza-ontziak, turismo bulegoen ekimenez, itsasertzean uzten dituzte ainguratuta.

Hannak galdetu du zergatik joaten naizen etxera hain gutxitan.

«Nirean ere etxean zaude, gero».

«Baina Leyla ez».

Leyla Katharinaren katua da.

Armin hizketan ari da Rabbeekin unibertsitate alemanen mailaz. Rabbeek ohartarazi du kritikaren hasta-

penak zeharo ezabatu dituztela ikasketa planetatik. Arminek ihardetsi du Alemaniako unibertsitate sistemak geroratu egin dituela beharrezko erreformak. Biek ezin hobeto elkar ulertzen dutela dirudi, nahiz eta puntu baikoitzean batak besteari aditu gabe hizketan aritu. Harmonian izateko haien ahaleginak minbera nauka.

Une horretan Katharinak deitu du eskuko telefonora. Hanna zer moduz dagoen jakin nahi du.

«Ondo», diot labur.

«Jarriko al didak, mesedez?».

Hasperen egin dut. Katharinak badaki minutu bat atzerrian hogeita hamar zentimo kostatzen zaidala. Zenbaki bat niri ematea bazeukan, nik berari gero deia itzultzeko.

«Bai, noski».

Izateko era hertsatu baten burutapenak: hogeita hamar zentimo minutuko.

Bertan egondakoak hots arrasto baten atzean aienatu dira.

Leihotik begira nago.

Itsasoak berunezko xafla baten antza du.

Eta bat-batean berriz gogoratu zait Baionako gure bisitaren bukaera: doi bat hiritik kanpo Montse, Zubieta eta hirurok eseri ginen hondar gainean. Corto Maltes komiki-heroiarekin ez bezala gertatu zen. Hiruki batek zailtasunak zelaitzen ditu partaideek ipuinaren mundua bertan behera uzten dutenean. Zubietak gauzen bere ikuspegia argitu zidan, «gatazkarena»; berak zioenez, «deklaratu gabeko gerrarena». Bat-batean oso berritsu ari zen.

Montse, aldiz, isilik zegoen. Gaua poliki sartu zen, aparrezko tantek behin eta berriz zipriztindu zizkiguten aurpegiak.

Orduan hasi nintzen Zubieta miresten, baina nire benetako interesa lehen, orain bezala, Montse zen, Montserrat, ahots urratuko emakumea.

Idazteari buruzko solasari berrekin genionean bildu zitzaigun hizketaldira. Eztabaidagai izan genituen existentzialismoa, surrealista, *Nouveau Roman* eta denbora luzean debekaturiko hizkuntzan egindako literatura. Berehalaxe *Joseba Sarrionandia* izena aipatua izan zen: idazle gazte bat, 1980an atxilotua eta terroristatzat kondenatu izana. Montserratek hura seinatu zuen autore gazte talentudunentzat, eta Zubietak gaineratu zuen behin betiko ulertu behar zela jarrera bat edukian baino gehiago forman ageri dela.

Zehatz gogoratzen naiz haren formulazioaz.

«Politikoa ez da zertaz idazten den, *nola* idazten den baizik». Burua lepondoan sartu zuen, halako eran non nire begirada Montserrategan paratu baitzen: Zubieta-  
ren ondoan eserita zegoen, nigandik zeharkako aldean.

Hazpegiak lehen baino finagoak zituen, ume baten antzekoak inoiz baino gehiago.



### III

ZER GERTATUKO ZEN MONTSERRAT ETA BIODK elkartu izan bagina? Haren etxera bizitzera joango al nintzen? x inguruko eskualdean bertakotuta? Zubietaren jarrerarekin identifikatzen hasiko al nintzen, Katharina inoiz ez topatzen, alaba ez jasotzen, hain axolagabeki irakurtzen zidan zirkulu hartatik fisikoki ere urrunduta? Eta azkenean horrek zer esan nahi izango zuen? Engaiatuko al nintzen Zubieta bezainbeste? Neure bizimodua bazter utzita, ausartuko al nintzen hiltzeko gaitasuna garatzen?

Montserrat eta biok ez gara elkartu. Ez gara elkarrekin oheratu, ez dugu inoiz elkar musukatu.

Agian, adin aldea handiegia zela uste genuelako.

Ez naiz x-n bertakotu, Berlinen baizik.

Arminen errotan aste bat eman ondoren, goizean abiatu gara Rabbee eta biok. Autoa bertan utzi dugu, Katha-

rinarentzat, arratsaldean Portugaldik itzuli eta bi aste gerorago autoa x aldera ekarri nahi dit eta.

Elkar agurtu dugunean, Hannaren falta nabarituko ote dudan galdetu diot neure buruari. Benetan ezerk ukitzen ez nauelakoan nago. Batzuetan sentipena dut ez dudala batere sentipenik, emozionalki inexistentea naizela: normala banintz bezala porta naiteke, ezagunek beharbada maitekortzat ere joko nindukete; hala ere, funtsean maiz ezaxolaz beterik egoten naiz. Nire arreba koman egon zenean, azkenean hil zedila desiratu nuen. Gai-xo iraunkor moduan biziko zela pentsatzeak zoratu egin ninduen. Gainera, familian guztiek azpimarratzen zuteenez, arrebak eta biok beti ondo elkar hartzen genuen. Gerorura bizkor indarberritu zenean, zorion handia sentitu nuen: gehiago niregatik harengatik baino.

Zer pentsatuko lukete nitaz nire lagunek, halako uneetan benetan nigan zer nagusitzen den jakingo balute?

Hannari agindu diot laster bisita egingo diodala, eta tinko besarkatu. Arminek bizkarreko txikiak eman dizkigu.

«Itzuli berriro... Hannarik gabe ere bai... nahi duzuen guztietan».

Baiezko mutua egin dut, esker onez. Haren eskuza-baltasunak lotsarazi nau.

Hanna negarrez hasi denean, musu eman diot begietan. «Izan maitagarri Arminekin», esan diot.

«Maitagarri?» Hanna negar-zotinka.

«Gogaikarri esan nahi du», argitu du Rabbeek. Autobusa geldidago. Gure poltsak maletategian jarri ondoren, gora igo eta keinuka hasi gara. Hanna eta haren aitona laster atzean geratu dira.

Murtziara goizeko bederatziak aldean iritsi gara. Aparkalekuan autobus geltokitik gertu kanpatuta daude ehunka ekialdeko europar, latinoamerikar eta afrikar *sans papiers*. Ordubete itxoin behar izan dugu abiatu arte, Rabbee eta biok aparkalekuan eseri gara, pinu baten gerizpean. Gizonezkoak baino ez dira bertan gau egiten dutenak. Lan bat itxaroten dute landa eremu batean edo eraikuntzan. Rabbeek galdera bat egin du ni Haberkammen tokian jarritz: «Nola jokatu, zuk aipatzen duzun europar identitate zibil berriarekin, pertsona haiei dagokienez, estatu europarretatik –Giorgio Agamben-ek esango lukeen moduan– *bizitza biluzien* egoera batean lantokiz aldarazten dituztenak, lan-indar merke gisa usiatuak izateko?».

Haberkammen erantzuna indarge kanporatuko litzatekeela uste dut.

Hamarretan abiatzen da Madrila doan autobusa. Laster, itsasaldea gure atzean utzi eta *La Meseta* hasten da, nekazaritza eremua: zitrikoak, ardoa, baratxuriak, laboreak.

Eta *Clubak*. Mortu bakoitzak bere putetxea dauka. Herri eta laborantza-etxeetatik pixka bat kanpo badaude gehienez hiru solairuko eraikinak, gau eta egun leihosaretak beheratuta eta bi metrotik gorako patio harresitu bat dutenak.

Burua leihoaren kontra bermatu dut.

Bibrazio bat.

«Zer aditzen ari haiz?», galdetu du Rabbeek. Kanpoan uzta bildutako labore-alorrak lerratzen dira gure aurretik.

«Sidestepper aditzen ari naiz, elektro latinoamerikarra».

Azalean pertsona bat ikus daiteke kamerari bizkarra ematen. Ez dakit ez ote den Richard Blair bera, jatorriz-

ko Sidestepper-kide bakarra. Haren jakaren bizkarraldean hizki handitan BRASIL ageri da.

Irudiak musikak berak baino ia esanahi handiagoa du niretzat.

«Eta zer aditzen ari haiz *hi?*», galdetu diot.

Rabbeek beti entzungailuak belarrietan jarrita eramatea niretzat hein batean argigarri da, Rabbee mende dago. Zergatik katramilatu naizen iPod batekin igarkizun da niretzat. Musika ordu erdi bat baino luzeago entzuten dudanean, lokartuta sentitzen naiz.

Rabbeek entzungailuak luzatu dizkit. M.I.A. rap-kantari tamil-britainiarra. Labur entzun dut.

Lau ordu geroago, Madril. Txitan egoteko moduko bero sapa. Madrid Sur geltokiko itxarongelan jendea presaka dabil. Autobus txartelak, denak salduta. Hemen ere kartelak eta horma-irudiak errumanieraz eta bulgarieraz. Gizon gazteak, fruta sailetan lan sasoia bukatutakoan beren sorlekuetara itzultzen direnak. Eta, deigarriki, emakume latinoamerikar asko, beren bikotekide edo lagunen antza ez duten gizonen konpainian.

«Kapitalismoak», diotsot Rabbeeri, «egun batean behera jotzen badu eta ordena berria legitimatzen saiatzen bada azpiratutako sistemaren izugarrikerien kontaketa-  
ren bidez, historia horiek antz-antzean telebistako dokumentuen eta *real-crime* motako erreportajeen jardun-  
gai bihurtuko dituk, gaur egun DDR estatuko Poliziaren jazarpenari buruzko txostenak diren bezalaxe. Kontakizun izango dituk etorkin mozkorren eta prostituzioan salgai jarritako emakumeen tragediak, eta mundu guz-

tiak nork bere buruari galdetuko zioke gizarte bat nola izan zitekeen hain axolagabea».

«Ez zagok gaizki, baina tonua pixka bat moralista», erantzun du.

«Hori heziketa protestantea duk».

«Katolikoa hintzela uste nian».

«Baina, hala eta guztiz, balitekeek protestante hezia izatea, bai».

Autobus geltoki aurreko belardian geratu gara, zain, azkenean lau eta erdiak noiz joko. Madril ez dut biziki atsegin. Neguan hotzegi da, udan beroegi. Lorezain batek ureztailuko giltza ireki du, eta zipriztinen turrustapean Zubietaren argazkia duen egunkari bat aireratu da ur-putzuraino berdegunearen erdian. Gainazalean lagunaren irudia dantzan ari da harat-honat. Begirakunea gero eta amorratuago, pixkanaka gero eta zopatuago.

Zubieta hiru haurretan zaharrena zen. Montserratek kontatu zuen geroago, hirurogeita hamarretako aurreneko urteetan bera bezala beste hainbeste haur barnetegira joaten ziren garaian, Zubieta hor zehar ibiltzen zela nonbait, etxean erabilia ez izateko. Haren familiak x-tik gertu kostaldeko herri batean zuen jatorria, eta bazeukaten etorkizun txarreko denda txiki bat, ogia eta egunkariak salgai zituena. Herriko biztanle gehienak bezala, Zubietaren aita ere x-ko lantegi batean sartu zen. Industrializazioaren bigarren olatu handiaren urteak ziren, eta x inguruko herrietan jende gutxi geratu zen baserrian edo itsasoan lanean. Aita etxera asteburuetan baino ez zetorrenez, Zubietak jada hamar urte zituela lagundu behar izan zuen: jaiegunetako arratsaldeak dendan eman, arreba txikia zaindu edo ukuiluan erdi ahaztuta zeuden bi behiez

arduratu. Montserratek baieztatu zuen haur kopetiluna zela, ikaskide isil zuhurra, eta inor gutxi zekien hari buruzko ezer pertsonalik. Hamabost urte bete baino lehen, etxean lanari uko egiten hasi zenean –tupusteko eran, gero–, aldaketa egin zuen. Franco azken hatsetan zegoen, eta x inguruko eskualdean nagusi zen, penintsulako beste tokietan baino areago, martxa giroa. Neskak minigonak janzen hasi ziren; bikoteak, jende aurrean besarkatzen; Eliza, diktaduraren euskarri garrantzitsuenetako bat, eragina galduz zihoan; ia egunero manifestazioak eta grebak izaten ziren. Zubieta giroari lotu zitzaion, ileak hazten utzi, aisia *kuadrillarekin* ematen zuen, lagun-zirkulua, eta emakumeetara bihurtu zen. Argi zegoen ez zela burutsua soil-soilik arratsaldeak dendan pasatuak zituelako agerian aldizkariak irakurtzen eta irrati emanaldiak aditzen, hasieran Frantziatik saio musikalak, gero baita BBCKo eta Radio Moskuko espainierazko albisteak ere, ez. Horrezaz gain, oso gatzduna ere izan zitekeen. Izan ere, garai hartan, polizien seme-alabak alde batera utzita, ozta zegoenean iraultzaile izan nahi ez zuen gazterik, Zubieta eta Montserraten lagun taldea ere hasi zen bilera debekatuetan mugitzen. Franco hilik, Erregeak jarraipena bermatu zuen, kaleetara ehunka mila lagun aterra ziren amnistia eskatzera. Zubieta eta Montserrat alderdi troskista bati atxiki zitzaizkion, orduko talde erradikal gehienak bezala erakunde debekatutik sortua; berriro berenganatu zuten bazter hizkuntza, aitona-amonek oraindik etxean hitz eginga baina landugabe eta larrekotzat joa; eta maiz egunetan gelditzen ziren x-n, dena bestelakoa, dena zirrara garria zen hiri handian. *Roman* frantsesei buruz eztabaidatzen zen, estreinako larru jotze traketsa edukitzen, jendea sexu-bidezko eritasunen eta haurduntzearen beldur zen, zine-klub batean bazkide egiten, Fran-

cis Ford Coppolaren film bat eta Jean-Luc Godard edota Denis Hopperren *Easy Rider* ikusteko, dena partekatzen zen, batzuetan baita neska-laguna edo mutil-laguna ere. Komuna bat sortzeaz hitz egiten zen, trebakuntza politikoa hartzen; jendea itsasoan biluzik bainatu eta lotsatzen zen, ohiko polizi kontroletan atxilotu, jipoitu eta bi egunez giltzapetzen zuten, eta lehen aldiz ohorezko saritzat hartzen zen lagun-zirkuluko kideren bat «beste aldean iheslari» ibiltzea, sasia.

Zubietari kostatu zitzaion unibertsitatearen uztaitik pasatzea; bitartean, minutu libre oro bilkuretan eta trebakuntza saioetan ematen zuen. Nahiz eta berak lagun-zirkuluko guztiek bezala orduan matxinada armatu bat defendatzen zuen konponbide bakartzat, liskarrean ibiltzen zen besteekin ildo politikoaz. Gehienek Uruguai edo Italiako Brigada Gorriak zituzten mintzagai; Zubietak, aldiz, *masa- eta langile-mugimendua eraiki* nahi zuen. Zentral nuklear baten aurkako herri-ekimen batean engaiatu zen, eta gero eta urriagotan azaltzen lagun artera. 1979 edo 1980 izango zen hura eta Montserrat banandu zirenean. Hau hasi zen filologia ikasten; hura saiatu zen aurrena ekonomia politikoan, gero antzerkigintzan. Geroago behin Montseri lagunaz galdekatu nionean, garai hartan beste garapen aldi bat izan zuela baieztatu zidan.

«Hamabost urte arte haur bakarti bat zen; hogeitik aurrera, gizon bakarti bat. Tarteko bost urteak baino ez ditu benetan bizi izan». Baina ez dakit hori ez ote zen oharpen horietako bat, iragana ederreste aldera.

Zortziak jota, autobusa Pancorboko haitzartera iritsi da. Pozak nago, azkenean iritsi gara eta. Leku honetan, penintsulako iparraldean, Madrildik 250 kilometro iparre-

ra, Gaztelako goi-lautada atzean geratzen da. Ebakidura mehar batek beste ezerk ez du eteten harkaitzezko hormatzarra, mesetaren mugarri. Errepideak, autobideak eta burdinbideak zeharkatzen dute hersgunea, hiru mailatan. Gurpil gainean goazela alde batera utzita, badirudi denbora hemen geldirik dagoela. Haitz mendikateak, gortorleku-murru baten itxurakoak, muga natural bat markatzen du. Ataria igaro bezain laster, Atlantikoaren eragina sumatzen da. Maldak berde bihurtzen dira, lur zelaiarekin batera muinoak eta mendiak elkarlotzen dira, itsas usaina hartzen da. X inguruko eskualdeak, topografia aldetik bederen, Espainiatik bereizia dirudi.

Autobusa geratu da, jaitsi egin gara. Txartelak Pancorboraingo baino ez ditut atera. Rabbeek paisaia ikusi nahi zuen, eskualdera iritsia nintzela nola edo hala ospatu.

Ostatu bakar bat dago igarobide ondoko herrian, apur bat kanpoaldera. Herrira bidean goazela, arrats beheerako eguzkia itzal luzeak jaurtika ari da gure oinen aurrean. Pancorboko igarobidea ixten duten harkaitzak laranja koloreko argi batean bilduta daude. Harri eginda nago haitz-horma ederraren aurrean; haren oinetan Santiago apostoluari eskainitako erromes-eliza bat dago.

Herriko taberna batean kafea eskatu dugu eta lokalaren aurreko bankuan eseri gara. Enarak jirabiraka. Pancorbo udako oporretatik kanpo ia hutsik geratzen diren ezin konta ahala espainiar herrixketako bat da. Parkeko bankuaren ondoan jolasten ari den mutil batek azaldu du neguan beste bi haurrekin bakarrik egoten dela herrixkan.

«Eta orduan norekin ibiltzen zara jolasean?».

«Goizero autobusa gure bila etortzen da eta hirira eramaten gaitu».

Nire koadernoan ohar pare bat zirrimarratu ditut nire proiektu-lanerako. EB-ko kide bihurtzea, etorkin-olatu berria hirietan, lur-espekulazioa, mediterranearen itsasertzeta eta hiri inguruko eskualde menditsuak elkarren segidako opor-leku erraldoi bihurtzea. Madrilen eta Barzelonan auto fabrikatu berri gehiago dago kaleetan, Alemaniako hiri gehienetan baino. Gizarte-egituraren errotikako aldaketa: hiru seme-alabadun familiarik haurrik gabeko eremura. Europara egokitze prozesua inon ez zen gertatu hemen bezain arras eta bortitz: ez nahitaez traumatiko, baina ezta aurrerapen soziala izendatzen den hori ere.

Bigarren kafearen ondoren buruko min arina sumatu dut. Hizketan aritu garen mutila badoa bere aitaren bila, eta une batez herriko plazan isiltasun osoa da nagusi. Tabernatik izozkailu baten dardara aditzen da. Rabbee eskuez lepondoa ari da kolpatzen, burua birarazten, eta gero arnasestuka gorantz ilunabarreko zerura begira, lehen izarrak ageri baitira.

Urak eramandako egunkariaren ikuskaria datorkit burura. Argazkian arriskutsu antza zuen Zubietak.

Zakur baten zaunka.

Neure buruari galdetu diot ez ote dituen polizia sail batek bilatze- eta atxilotze-argazkiak manipulatzeko bilatutakoen aurpegietatik adiskidezko keinu bakoitza desagerrarazteraino.

Eta gero bat-batean esanezinezko beldurra izan dut.



GOIZ BATEAN ETXETIK IRTEN DA. Agiriak eta jantziak zorro batean bildu, kremaiera itxi eta liburu bat hartu du. Izenburua liburuko azalean deigarriki luzea da; egilearen argazkia, lausoa: gizon bat, bizardun, hogeita bost urte, irribarrez.

Auto baten klaxona entzun da ate aurrean. Protagonistak, oso gaztea, lehen zegoen tokian utzi du liburua, azkeneko aldiz ingurura begira. Horman egutegi bat eskegita dago, 1985 zenbakia nabari da, leihotik kanpo industrigunea eta belardi segaz ebaki berri bat. Maldetan belarra ontzen.

Gazteak etxebizitza utzi du eta ezagun bat dagoen auto batean sartu da, behean ate aurrean aparkatuta dagoen SEAT zahar batean. Kaleko irudiak ez dirudi bat datorrenik egutegiko urtearekin: janzkera eta orrazkerak hirurogeita hamarretan bezala, kebideak industrializazioaren hasieran bezala, eslogan politikoak hormetan SEATA egiten ari den bidean.

Gizonek alde zaharreko kale batean utzi dute autoa eta furgoneta handi batera igo dira. Sonido Estereo ja-

*rrita dauka ibilgailuak olanan hizki handi urdin ilunetan, azpian telefono zenbaki bat 943 eremu-kodeduna. Furgoneta, hiribarnea atzean utzita, luze gabe eraikin handi batera iritsi da, errepidetik gertu. Talaiak, txarrantxa, murrugaraiak: espetxe bat, inondik ere. Sarrerako kontrolak ez dirau luze, furgonetak ordua eskatuta daukala dirudi. Kartzelako patioan barrena doa, arrapala baten aldera deskargatzera. Gela handi batean bafle dorreak muntatzen ari dira eta aulkiak lerroka ipintzen.*

*Aretoa betetzen ari da, musikariak oholtza gainean daude, kontzertua hasi egingo da. Entzuleek ez daramate preso-uniformerik, baina atxilo daudela ezagun da berehala. Horien atzean, irteeretan, giltzazainak. Aldaroka dabilta. Azkeneko kantaren ostean –txaloaldi luzea– presoetako batek ekitaldia bukatutzat eman du; jendetza zutitu eta zalaparta betean irten da aretotik. Une horretan gazteak, gure protagonistak, adoretzu oholtzara salto egin eta esku-mugimendu gutxirekin bozgorailuen kutxak alde batera alboratu ditu. Aldi berean multzotik irteten ausartu den presoetako bat haien ondoan jarri eta, funtzionarioen oharkabean, bafle-estalki baten barrura lerratu da. Orain gazteak, gure protagonistak, bi bozgorailu daramatza eskorga batean gela horretako ate aurreraino; bozgorailuen apar-gomazko azala kendu eta orduantxe, giltzazain bat oholtza aldera doanean presoren bat aretoan gelditu ote den kontrolatzeko, ireki egin du bafle-estalkia. Ezkutatua, hantxe utzitako kutxa barruan narrasean, kokoriko jarri da. Solasaldien eta taldeko musikaren hotsa tarteko, giltzazaina ezer aurkitu gabe oholtzatik beherantz begira dagoela, gure protagonistak apar-gomazko azala tinkatu du bozgorailu kutxan, eta eskorgaz aretoko irteerara darama. Tresneria guztia desmuntatu eta berriz furgonetan kargatzeak luze ez dirauen arren, hurrengo minutuek azkenga-*

*beak dirudite. Edozein unetan giltzazainak ohar litezke atxiloetako bat ez dela bere gelara itzuli.*

*Azkenean, Sonido Estereo furgoneta abiatu da. Espe-txe irteerako kontrol-gunean zain dago Guardia Civil polizia. Orduan oraindik tricornioak zeramatzaten, kapelu beltz adardun haiek, ikusi eta diktaduraren oroimena gogora zekartenak. Gure protagonista ikaratan hasi da, poliziek kabinatik jaitsarazi eta zama-lekua zabalarazi diotenean; izerdi tantak azaleratu zaizkio bekokian. Lelokeria galanta, pentsatu du, honela saiatzea, nabarmenegia. Kuxatzar beltzak, ezkutaleku gisa, ezta hartaratuta ere.*

*Hala ere, Guardia Zibilak ez ditu Sonido Estereoko enplegatuak behartu bozgorailuak banan-banan ateratzera. Poliziek gainetiko begirada bat bota dute furgon-taren zama-lekura, hitzik gabe larderiaz baietza eman eta aurrera jarraitzeko egin diote keinu. Ibilgailua –eta bertan gaztea, haren laguntzaile SEATena, txofer bat eta ihes egindako preso– abian doa bainu sendagarriak eta kaia dituen hiri baten aldirian zehar. Zeruak alegiazkoa dirudi, itsasoak apartsu, berde zuria, euforia antzeko zer-bait usnatzen da.*

*Azkenean, furgoneta biltegi baten aurrean gelditu da. Gure protagonistak, atzealdera joanda, bafleen apar-gomazko estalkia kendu du. Preso iheslaria, orain trakets antzean kanpora narras eginez, gure protagonistaren besoe-tara erori da zoriontsu. Iritsi da hura ezagutzeko garaia: goizean protagonistak eskuan hartu duen liburuaren egi-lea da, Joseba Sarrionandia idazlea, ordurako nahiko eza-guna: bazterreko literatur aldizkari baten sortzaile, era-kunde bateko ekintzaile, zeinaren izenak artean laurogei-ko hamarkadan bestelako oihartzun bat baitzuen, gaur-daino x inguruko eskualdeko eragile garrantzitsuenetako bat.*

*Gure protagonistak eskua pasatu dio buruaren gainetik, bi gizonak elkarri zori ona opa diote, gero ihes egingo dako presoak jauzi egin du zama-lekutik kalera eta, jakina, haren zain dauden etxe baten ataritik desagertu da. Haren askatzailea, ordea, txoferraren kabinara berriz igo da eta furgonetan doa Sonido Estereo enpresaren egoitzara: hortik abiatuko da hurrengo goizean, muga Frantzia aldera zeharkatzeko.*

*Hau 1985ean idatzi dugu, orduz geroztik ez gure protagonista ez idazlea ez dira itzuli.*

Sarrionandia 1985ean espetxetik askatu zuena Zubieta bera zela lehen aldiz urte batzuk geroago jakin nuen, egunkaritik. Horrela izan nuen ihesaren berri. Badago kanta nahiko ezagun bat historia kontatzen duena eta x inguruko eskualdean herriko jaietan sarri jotzen zena.

Gure bidaiaren azken etapa hurrengo goizean egin dugu Rabbeek eta biok, autoz. Pancorbotik x-ra hiru ordu ia.

Hirira heldu garenean, beroa itogarria da. Atlantikotik barrura bultzaturiko itsas airea Kantauriko mendien isurietan metatu eta berotu egiten da. Bero heze, ia tropikala. Euforiko hartu dut sarrerako bide-lerroa. Zoriontsu naiz berriro hemen egonda, lehen aldiz hilabete bat edo bi baino luzeago geratzeko. Izerditan hiribarnera oinez goazen bitartean, hiriko egitura azaldu diot Rabbeeri. Itsasadarrak, itsasaldien eraginez eratuta, bitan erdi bitzen du x. Ibai zikin uherraren ezker aldean zegoen lehenago Europako langile auzune handienetako bat; bitartean, alde hori ere errotik saneatu dute. Altzairu-industriako tonu herdoil nabarrei txanda hartu diete kris-

tal eta kromozko eraikin distiragarriek: museoak, kongresu jauregia, hotelak. Kaleetan ondo antolaturiko zirkulazio jariora dabil trabarik gabe, tranbia berri bat letratuz doa ikus-eremuan, irudiak lurrin eta moda dendak ditu osagai. Duela hogeitau urte, behin Montserratek kontatu zuenez, X-n ezin zen arropa zuria kanpoan lehortzeko zabaldu, gas jariakinek jan egiten zutelako. Aldianaldian enpresek ibai aldeko auzokideei errezel berriak banatzen ei zizkieten doan. Egun, hiriaren kanpoaldeko paper-fabrika pare batek baino ez du airea kutsatzen.

Arnasa har daiteke berriro: horretarako, soilik ibaia-  
ren ezker aldean ehun milaka lanpostu desagertu dira,  
eta eraikuntza enpresek eraldatu dituzte langile auzo zaharrak, ordezkartzen bulego-guneak eta klase ertainentzako etxebizitzak sortuz.

Rabbeek barre egin du. «Andaluzian, bai, oraindik ikusten duk bazter zikinen bat edo beste, baina hemen, argi eta garbi, zera duk, *la petite bourgeoisie...* Suitza, Genevako lakua edo horrelako zerbait».

«Genevako lakuan», erantzun dut, «ez ziotek ehuneko hamabostek botoa ematen muturreko ezkerari».

Lau geltoki ibili dugu metroan, azkeneko arkitektura bienaleko erakusketaren zati bat ematen duena. Montsek, oporrak, ez naiz zehatz gogoratzen, Marokon, Mexikon edo Dominikar Errepublikan igarotzen ari baita, bere etxeko giltza gordailuan utzi digu ondoko taberna batean, hilabete hasiera arte ezinezkoa zitzaidan-eta neutre etxebizitza hartzea. Rabbee eta biok lokalera sartu garenean, X-n eta inguruan nagusi den salbuespen egoeraren erreferentzia bat fokatu dut: kartel politiko bat, preso argazkiak, egunkari alternatibo bat. Izkinako tabernako hormetan, berriz, paisaien irudiak baino ez daude eskegita. Tabernariak, hitz gutxikoa bera, eskura eman

dit giltza, eta geroxeago Rabbee eta biok igo gara Montserratek bere mutil lagunarekin partekatzen duen tei-latupeko etxebizitza txikira. Nola deitzen den ere ez da-  
kit. Ezagutzen dudanetik, urte guztiotan, behin ere ez  
diot galdetu lagunaren izenaz.

Izan ere, hura beti lanean ari da.

Etxeari kiratsa dario. Zangoen inguruan leunki ukitu gai-  
tuen katemeak ez du bazka edo urik nahi, gure arreta bai-  
zik. Ez diot, hala ere, inolako kasurik egin, txiza eta ka-  
ka usainak nazka ematen dit. Rabbeek katuarekikoak  
egin eta biok dutxa luzea hartu eta gero, Montserraten  
ohe gainean etzan naiz. Komikiak oraindik ere toki be-  
rean daude, logelako apalategian, nahiz eta lagunak te-  
lefonoz baieztatu zuen urteak zirela ez zuela Corto Mal-  
tesengan gehiago pentsatzen. Hori esan zuenean, neure  
buruari galdetu nion zerbait jakinarazi nahi ote zidan:  
ezkutuko berri bat, neurri berean hala niri nola Zubie-  
tari ere zegokigukeena. Leiho zabaletik kaleko zarata da-  
tor barrurantz. Eguerdiko pausaldian x-n isiltasun han-  
dia izan daiteke; batez ere, kanpoaldeko auzoetan, itsaso  
alderantz. Alabaina, hotsak ez dira inoiz guztiz hiltzen,  
beti izaten da zer edo zer entzuteko. Sabaiari begira na-  
go eta Rabbee entzuten ari naiz liburu baten orri-pasan.  
Behingoan bakarrik egon beste gogorik ez dut.

Rabbee ezagutu nuenean atsegin nuen haren arin-  
tasuna. Haren gaitasuna jendearengana hurbiltzeko. Bai-  
na, bidean garenetik, guztia gaizkiulertu huts bat izan  
balitz bezalako sentimendua daukat.

Pentsatu dut: konpainiak bizipenen intentsitatea gu-  
txitzen du, abaguneak ezinezko bihurtzen dira.

Beti bakarrik izaten nintzen zoriontsuen.  
*Hori ote nintzen?*

Rabbeek arropak atera ditu poltsatik. Sarrionandiaren kartzelatik ihesaz hitz egin diot, eta bertan Zubietak, egunkarietan *bandako buru* izendatuak, jokatuako paperaz. Ezagutzen dudala ez diot esan.

«Okay...», Rabbeek baiezko mutua egin du. «Baina horrelako *story* bat kontatu ahalko huke Guantanamoetik ihes egiten duen islamista baten gainean ere».

«Ez duk gauza bera», erantzun dut.

«Seguru, gauza bera ez duk». Rabbee: sotila, esamolde zehatzaren maisu, hizkuntza alemanaren mosketari hitz-iaioa. «Baina haiek ere jendea hiltzen ditek, haien iritziz jende horrek identitate faltsuaren aldeko hautua egin duelako».

«Hori ez duk zuzena!», kio bat atera zait.

«Ez dela?».

«Lehenik eta behin, duela hiru urte ez ditek inor hil... Eta, bigarrenik, horri dagokionez estatu mailan gehien-goia duten bi alderdien agintariak...», ez dut bukatu esaldia. Egiatzapen bakoitza zuribide bat balitz bezala aditua da. Hori ere esanezinaren atal da: oharpen bakoitza esanahi-sistema tinko baten zerbitzupuan dago, ezin da zehatzago izan, kontaketa bat ala bestea berretsi baizik.

«Irakur ezak Sarrionandiaren eleberria», hartu dut gaia berriro. «Ez duk batere identitario edo nazionalista... Edo pentsa ezak Zubietarengan. Hogeitaz urte dituk desagertu zirenetik eta, hala ere, idazten ditek. Honi buruz, gero: hizkuntza, literatura, errepresio, bortizkeriaren arteko harremanari buruz. European, XXI. mendean, Franco hil zenetik hogeita hamar urtera...».

Rabbeek zigarretari atxiki luzeegia hartu eta sorbaldak altxatu ditu. «Zera duk, hala ere, Galiako herri txikiaren istorioa, ezta? Denboraren igarotzeari aurka egiten dion komunitate konjuratu baten *storya*... ez duk uste Tarifa aldean itsasartean ikusi duguna esanguratsuagoa dela Espainiaz, historia etniko hori baino?».

Agian bai, erantzuna ezpainetan geratu zait, baina agian ez. Agian, dena elkarri loturik dago: mediterranean itsasertzean etorkin afrikarrak ehizatzen dituzten helikopteroak, drogen diru beltzaz piztutako lur-espekulazioa, ilegalek eta gose-soldatapekoek eraikitako opor-kolonia arima gabeak, eta berrehun bat mila pertsonaren nahia horren kide ez izateko.

Baina ez dakit hori nola azaldu ulertua izateko. Ge-roago arratsaldean: izerdi-patsetan. Zutitu naiz bigarren dutxa hartzeko. Katua kanpoan dago, sukaldeko leihotik zehar limurtu eta auzoko teilatuetan ibiliko da alderrai. Gehienez zortzi metro koadro dituen egongela itogarri-  
ra bidean irratia piztu dut.

Ruper Ordorika, eskualdeko musikari ezaguneneko bat, lehen debekaturiko bazter hizkuntzan ari da kantatzen.

Hozkailu ondoan geratu naiz zutik, kanpoan itsasadarra dirdaitsu.

Ordorika, maiz idazle adiskideen olerkiak musikatzten dituen, kantuan ari da: *hainbeste eman zuten / lagun izen gabeak...*

Hizkuntzekin motorren zaratarekin bezala gertatzen da. Behin ikasiz gero, inoiz ez dira berriro guztiz ahazten. Nahiz eta x inguruko eskualdean mintzatzen den, *baita ere* mintzatzen den, hizkuntza inoiz menderatu ez dudana, beti itzultzen da, zeharo ahaztuta dudala uste dudanean, ustekabean berriro:

*Goazen, bada. / Palmondopean / Laztan ditzagun / Kaobazko eskuak / Tristeziaren metro kuadratu / Baten gaindi...*

Ziztada bat sumatu dut bularraldean, izerdi tantak pixkanaka isurtzen sabel gainean.

Zergatik guztiak igortzen du historia berera?

Izan ere, edonor izan liteke horrela deitua: *lagun izen gabea, lagun erratua*. Baina inori ez dagokio Sarrionandiarri baino hobeto: gaztetan hirurogeita hamarretan Ordorika musikariarekin bazterreko literatur aldizkari bat sortu eta kartzelatik ihes egin ostean sasia ibili behar tropikoetan. Berak ere gatibu-gela bateko tristeziaren sei metro koadratuak palmondopeko etxola baten truke aldatu ditu.

Dutxaren ondoren osterata bat egitea proposatu diot Rabbeeri. Nire lasaitasunerako, ez didala lagundu nahi erantzun du.

Bertakoek x-ko alde zaharrari *Zazpikaleak* deitzen diote, zazpi kale itsasadarraren ekialdeko ur bazterrean: tabernak bata bestearen ondoan nongura. Metroan bost geltoki erdialderantz egin eta haren sistemako aluminiozko eskailera mekaniko piko bukaezinak igo ditut. Kaleraren irten naizenerako ilun da. Eguzkiaren sarrerako pur-

pura-koloredun marra bat baino ez da geratzen mende-  
baldeko mendien gainetik.

Bero egiten du. Elkarren ondoan estu kokatutako etxadien artean, denda, sarbide, gauza guztiek usna-arrasto bana uzten dute beren atzetik: arrandegi baten usain bortitza, eskailera lixibaz lanbasa pasatu berriak, harrizko horma zahar berotuegi baten inguruko aire geruza. Saltokien gaineko ia etxe guztiek balkoi beiradunak dituzte, *miradores* deituak, x-n bezala Portugal iparraldeko hirietan ere tipikoak baitira. Etxe gehienak eraberrituta daude, lehen zuten lizun usaina galdu dute, lehengo mehartasun proletarioa, eta, hala ere, ez dute egiaz pinpirinduta ematen. Tabernetako ateen aurrean elkarren kontra estutzen da jendea, hamabost eta berrogeita hamar urte bitarteko gizon eta emakumeak. Euren *cuadrillarekin*, lagunartean, lokal batetik bestera ibiltzen dira, ba-koitzean garagardo xirripa baino ez edateko, apetitua piztekoa, aperitiboa, eta beste lagun-talde batzuk topatzeko. Nire aurreneko bidaietan betiere hunkigarriena egin zait nola ibiltzen den hemen. Inor ez dago bakarrik bidean, bat ere ez da beretzat baino ez mozkortzen. Areago, mozkorrek elkarri begirunea erakusten diote; hala ere, batik bat, ibilera pisua da, jarrera politiko baten atal. Hirurogeita hamarreko hamarkadako erdialdera arte jai tradizionalak debekaturik zeuden, lehen auzo-batzarrak eta oposizio-taldeak antolatu berriak ziren. Harrezkero x-ko eta inguruko herrietako jaiak funtsean bereizten dira penintsulako gainerakoetarik. Gardentasuna antzematen da edonon. Jai-guneko txosnak ez dira edari-enpresenak edo udal-administrazioarenak, ekimen politikoarenak baidiz; duela hogeita hamar urte udaz uda x-ko jaietako karparik handienaren goialdean jartzen da Marxen irudi erraldoi bat: Groucho Marx.

Ez dakit zergatik ahazten dudan behin eta berriz.

Europar identitate zibilaz baino gehiago Europaren hustasunaz idatzi beharko litzateke. Orban itsuez. Estalita dagoenaz, hasieran inolaz ere sumatzerik ez dagoenaz.

Taberna batean sartu naiz, barra atzeko argazkietan eskegita daude ikurrak: auzoko presoek irudiak: *terroristak*. Zubieta bezalako jendea. Barra ondoan eseri eta garagardo bat eskatu dut.

Argazki hauetan agertzen diren batzuek pertsonak hil dituzte. Baliteke haien jokabidea ez izatea duela zerbait urte munduan alderdi antagonista ordezkatzeko dutela baieztatzen duten erlijio-gudari islamistena bezain itsumustukoa; baina ez dira hain zuzen ere nabarmendu ez besteren ezta beren bizitza ere aintzat hartzeagatik.

Ruper Ordorikaren *Lagun erratuena* abestian dio:

*Mundua ala norbera, arrazoia ala nahia, / zein da antzaldatzen? / Gaueroko epaian errudun / ala gabe al dira sentitzen?*

*Lagun* hitzak *adiskide*, *pertsona* edo *jendaki* adierazten du; *erraturen* esanahia *alderrai* izan daiteke, baina baita *nora gabe ibili* edo *oker egon* ere. Zazpiehun jendaki-pertsona-adiskide kartzelan daude, horiek dira argazkietan azaltzen direnak. Oraindik ere 1.500 bat lagunek bizi behar dute identitate faltsuaz nonbait isilpean; Zubietak eta Sarrionandiak, besteak beste.

Ez dago zehatz jakiterik galduak ote diren, nora gabe dabilzan edo, besterik gabe, abian doazen. Ihesaren ziurgabetasunean hori bereiztea ez da inoiz erraza izaten.

Barrako iturriaren ondoan aldizkari bat dago. Bernardo Atxagari egindako elkarrizketa bat topatu dut ustekabeen. Hogei hizkuntzatan itzulia eta Espainiako *Premio Nacional de Narrativa*ren jabe da Atxaga. Idazleari egindako galdera da zergatik inbertitzen duen hainbeste energia aspaldion debekaturik ez dagoen hizkuntza ez aski eguneratuan.

*ELKARRIZKETATZAILEA: ...nik onartuko nuke, ingelesa nahiko ondo, berdin, jakinez gero, nire ama-hizkuntza utzi eta ingelesera pasatzea.*

*ATXAGA: Bakanetan gertatzen da norbaitek hazia izan den hizkuntza uztea. Hor kontu afektibo, familiarrak tar-tekatzen dira. Zure lagunekiko harremana garrantzizkoa ez zaizula esaten badidazu, zuzena izan liteke. Nahiko zaharra naiz horrelako zerbait gertatzen dela jakiteko. Baina onargarria da, halaber, beste batek horrela ez iriztea. Pertsona batzuek, maite dutenarengatik, 2.000 km egiten dituzte, eta beste batzuek, aldiz, 1.000 m ere ez lituzkete egingo.*

*Identitate kulturalak aldatzen errazak direla dioen diskurtsoa metropolien diskurtso bat da. Duela gutxi idazle baten bisita izan nuen. Hizkuntza ingelesaren izen handienetako egiletzat hartzen dute, nahiz eta haren ama-hizkuntza ingelesa ez izan. Zergatik idazten du ingelesez? Periferiako lurralde batean duelako jatorria, eta alde ederra da zure egile-eskubideak dolarretan ala koroa nabiarran jasotzea. Horren atzean botere harreman bat dago: ipar eta hego aldean artean, aberatsen eta behartsuen artean. Eta, hortaz, ez dut uste hizkuntza bat aferatranszendental bat denik. Haren baitan ez da islatzen inolako kontzientzia kolektibo ezkurturik, inolako bestelako-*

*tasun azpimarragarrik. Gogoz egiten den hizkuntza bat da soilik. Besterik ez.*

Ukondoak gainean jarri ditut. Barra atzeko gizonak belarritako bat darama eta alkandora higitu bat *Chiapas* idazkuna duena, nire aldameneko gazteek txima-orrazkera dute, zenbaitek x inguruko eskualdean modatzat hartua, antza. Bestela baitakoan-edo begirada ibili dut haietako batek aurrean zabaldu duen egunkariaren gainetik. Prentsa asko irakurtzen da hemen, albisteez oraindik esanahi erreala dute. Berri ematen dute ez bakarrik politikaren eszenifikazioez. Gaztea buru-belarri ari da irakurtzen badaezpadako urtegi baten eraikuntza lanei buruzko artikulu bat. Nik interes handiagoa dut ondoko albistean. Frantzian, dio, etxe sorta bat atzeman dute.

Nire aldamenekoaren aldera bermatu naiz. Inor atxilotu ote duten, izenak ez dira aipatzen. Hala eta guztiz, berehala sentitu dut miaketa horiek zuzen dagozkidala.

Zubieta berriro Europara itzuli izanak dena aldatu du.